

EUSKOTRENEK GAUEKO ZERBITZUA INDARTUKO DU SONDIKAKO INAUTERIAK DIRELA ETA

Euskotrenek otsailaren 28an eta 29an Kukullaga-Etxebarri / Sondika artean gaueko trenen zerbitzua indartuko du Sondikako Inauteriak direla eta.

Otsailaren 28tik 29rako gaua

Ostiraletik larunbaterako gauean gau osoan zehar trenen zerbitzua egongo da. Kukullaga-Etxebarri / Sondika maiztasuna ordu batekoa izango da eta Kukullaga-Etxebarri eta Lezama artean bi ordurik behin.

3. Linean zerbitzua gau osoan zehar eskainiko da. Ostiraletako ohiko zerbitzua bukatu ondoren, 30 minuturik behin tren bereziak eskainiko dira.

Otsailaren 29tik martxoaren 1erako gaua

Txorierriko linearen gaueko ohiko zerbitzua (bi ordurik behin) Sondika eta Kukullaga-Etxebarri artean tren bereziekin indartuko da. Tarte honetan zirkulazioak ordu betez behin egongo dira.

3. Linean zerbitzua larunbat gaueko ohikoa izango da, zirkulazioak gau osoan zehar 15 minutuz behin izanik.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen honako telefono zenbaki honetara dei dezakete 944 333 333. Horrez gain, informazioa jaso dezakete geltokietan eta geralekuetan, konpainiaren www.euskotren.eus web gunean, Euskotreneko APP ofizialean, eta [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) twitter gunean.

Igorpen data, asteazkena, 2020ko otsailaren 26a